

LAURA PEGO OTERO
ABOKATUA

«Torturaren erabilera inpunitateari lotuta dago»

Laura Pego Otero (Pasaia, 1968) abokatu eta Kriminologiako Euskal Institutuko ikerlaria da. Torturaren inguruko ikerketan ibilbide luzea du eta azken hilabeteotan Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren aginduz *Tortura Ikerketa proiektua (1960-2013)* aurrera eramateko eratu den lantaldeko partaide da. Horri buruz hitz egin digu.

| ANDER LEON |
Argazkiak: Dani Blanco

Torturaren inguruan egin duzun lehen lana ez da hau.

“Tortura euskal esparruan” izeneko tesina izan nuen lehen hurbilpena. Geroztik atxilotutakoen eskubideen inguruan lan egin dut, 2007an Arartekoak enkargatutako txostenean, eta berriki Eusko Jaurlaritzaren aginduz inkomunikazio egoeran izan diren atxiloten inguruan. Aurreko bietan tortura zeharka jorratzen da, atxilo-

ketaren balizko ondorio bezala. Oraingo ikerketa berriz zehatzagoa da, torturaz, bai atxiloketa guneeetan baita espetxeetan ere.

Zergatik tortura?

Giza eskubideen defentsa betidanik interesatu zait. Torturak beste biolentzia batzuek ez duten osagarria du: mina edo sufrimendua funtzionario publikoak eragindakoa da,

edota behinik behin, sistema publikoak ordezkatzeko duen pertsona batek bultzatu edo baimendu du. Eskubide bermatzailea da eskubideak hausten dituenak, babestu behar gaituena da delituaren egilea, eta horregatik da hain larria.

Tortura ukatzen dutenak badaude.

Torturaren biktimek ez dute kasu gehienetan onarpenik izan, ez sozialik





“Joxe Arregiren espedientea aurkitu dugu Madrilgo fundazio batean artxibaturik. Kopia bat eskuratzear gaude eta laster ekingo diogu azterketari”.

ezta juridikorik ere. Salaketei kutsu politikoa eman izan zaie eta normalean ukatu egin dituzte. Prebentziorako neurriak aurkeztu dituztenak alarmitatzat hartu izan dira. Tortura salatu dutenei ukapen horri buruz galdetzen diegunean, ez diote garrantzi handiegirik ematen, “nik badakit zer egin didaten eta nire ingurukoek ere bai, horrekin nahikoa dut” esan ohi dute etsipenez. Batzuek torturarik ez dagoela ziurtatzen duten bitartean Giza Eskubideetarako Europako Tribunalak Espainiako Estatu behin eta berriro zigortzen du salaketak ez ikertzeagatik.

Zein da orain abian duzuen proiektuaren helburua?

Hainbat helburu ditugu: torturaren inpunitatea bermatzen dituzten elementuak identifikatzea, torturatuen errolda egitea, salaketa batzuen sinesgarritasuna baloratzea, kasu esanguratsu batzuk aztertzea —batez ere biktimen bizitzetan izandako eragina neurtzeko—. Horrekin guztiarekin txosten orokorra idatziko dugu. Torturaren gaiari hurbil-

pen zientifikoa egin nahi diogu, eztabaida ideologikotik atera eta enpirismoan oinarritutako txostena idatzi. Hori bai, argi eta garbi daukaguna zera da: giza eskubideen urraketan aurrean ezin da neutrala izan.

Hiru mediku eta jurista bat zaudete. Zer lan egiten du zuotako bakoitzak?

Paco Etxebarria da proiektuaren zuzendaria eta Ikertzaile Nagusia, ibilbide luzea du egina halako kasuetan; Benito Morentin, berriz, salaketen sinesgarritasuna aztertzeako arduraduna da, Istanbulgo protokoloa jarraituz; eta Martin Beristainek kasu esanguratsuenak aztertzen ditu. Nire lana, salaketen inguruko dimentsio juridikoa baloratzea da, ustezko biktimekin harremanetan jartzea eta eragile sozialekin kontaktuak egitea.

Zeintzuk dira eragile horiek eta nola-ko harrera izan du zuen jardunak?

Torturaren gaia bereziki jorratu duten elkarteekin hasi ginen, TAT, Euskal Memoria, Amnesty International edo Salhaketa modukoak. Gizarteko beste hainbat sektore

ordezkatzten dituzten eragileekin ere egon gara: SOS Arrazakeria, drogamenpekotasunaren ingurukoak, giza mailako elkarte kristauak, sindikatuak... Baita mundu judizialekoekin ere: abokatuak, epaileak edota fiskalak. Egitasmoa aurkeztu diegu eta beraien babes erabatekoa izan da. Denek erakutsi dute ikerketan laguntzeko borondatea.

Gaia oso sentibera da, kritikarik jaso duzue?

Guri zuzenean ez zaigu inor kritika-ekin etorri. Artikuluren batean bai irakurri dugu hainbat polizia-sindikaturen kezka, baina ez horrenbeste ikerketa beragatik baizik eta kondenarik gabeko salaketei ematen zaien tratamenduagatik. Hau da, beraien ustez salaketak ez dira kontutan hartu behar frogatzen ez badira.

Baina torturaren arazo handienetako bat hori da, frogatzea zaila dela.

Eusko Jaurlaritzaren 2013ko txosten baten arabera, salaketa publikoak edo judizialak kontutan harturik, 5.500 kasu inguru egon daitezke. Haietatik Espainiako tribunalek 20 bat zigorepai baino ez dituzte eman. Tortura frogatzeko zailtasun handienak, hainbat nazioarteko erakunderen arabera, komisaldegietan eta espetxeetan egon daitezkeen inpunitate espazioak dira. Erakunde horiek diotenez ikerketak falta dira, eta indarrean dauden bermeak ez dira nahikoak. Opakotasun esparruak daude.

Inkomunikazioa da tortura ahalbidetzen duen arrazoi nagusia?

Esan dezakegu inkomunikazioaren baldintzek horrelako egoerak erraztu ditzaketela, baina ez soilik Lege Antiterrorista aplikatu den kasuetan. Tortura jasaten duten beste kolektiboak ere badaude: delinkuente sozialak, toxikomanoak, etorkinak... Babes sozialik gabeko pertsonak izan ohi dira, tortura salatu ere egiten ez dutenak. Guk kasu batzuk atzeman ditugu, baino gehienek ez dute horri buruz hitz egin nahi, tortura atxilotetaren atal bat bezala ikusten baitute.

Ez dute babes edo sinesgarritasun bera etorkin toxikomano batek edo Martxelo Otamendik, baina kasu guztien atzean modu bateko edo besteko inpunitatea dago. Hori

“Pertsona bat urteak igarota kamera aurrean esertzen denean, atzean zerbait larria dagoela esan nahi du. Hori ez sinestea zaila egiten da”

izan daiteke torturaren gakoa, balizko torturatzaileak babesten dituen. Eta horri funtzionario batzuen korporatibismoa gehitu behar zaio.

Eman dezakezu adibideren bat?

Gogoratuko duzue 1995ean emakume brasildar bat bortxatu zutela Bilboko komisaldegia batean. Epai-leak bortxaketa frogatutzat eman zuen baina ez zuen inor zigortu. Egun horretan lanean zeuden polizien artean isiltasunaren legea izan zen nagusi eta hori izan zen epaia: delitua bai, baina errudunik ez.

Eta egoera hori izanik, zer pauso emango duzue salatutakoa benetakoa den baloratzeko?

Nazioartean onartuta dagoen metodologia erabiliko dugu, Istanbulgo Protokoloa, hain zuzen ere. Sistema horrek hainbat pauso aurreikusten ditu eta bertan ezarritako egiaztatze frogak baliogarriak izango zaizkigu edozein salaketaren sinesgarritasuna baloratzeko.

Orain arteko emaitzei begiratuta zein da torturatuaren profila?

Gizonezkoa eta Polizia Nazionalak 80ko hamarkadan Gipuzkoan atxilotua. Horiek dira item bakoitzean gehien ematen diren erantzunak. Gehienak ere inkomunikazio egoeran egon dira eta beraien salaketek ez dute aurrera egin. Sexuaren arabera aldea nabarmena da: %85 gizonak dira eta %15 emakumeak. Atxilotetaren arduradunen artean kasuen %49 Poliziaren eskuetan egon da, Guardia Zibilak %41 eta Ertzaintzak %9. Hamarkadei begiratuta topea jotzen du 80koan eta hortik atzera jaisten joaten da.

Gerra zibileko desmasiak argitzeko, igarotako denbora oztopo handia da. Hemen ere hala gertatuko al da?

3.587 tortura salaketa

EUSKO JAURLARITZAK 2014ko martxoan eman zion agindua Kriminologia Institutuari Euskal Herrian azken mende erdian izandako torturak ikertzeko, Bake eta Bizikidetzeta Planaren barruan. Zenbaitetan, torturaren gaia jorratu duten erakundeek bidez heldu dira tortura jasan duten pertsona horiengana, beste batzuetan biktimak berak jarri dira harremanetan telefono edo e-posta bidez (943018381 / torturaproiektua.ivac-krei@ehu.es).

Lehenengo fasearen emaitza 2015eko otsailean jakinarazi du ikertaldeak: oraingoz 3.587 tortura salaketa errolatu dituzte eta horietatik 2.820 aztertu. Orain horietako 200 bat kasu aukeratu eta torturen egiaztatze fasean ari dira. 2016ko irailerako ondorioen txostena entregatuko dute.

Diktadura garaian salatzea askoz zailagoa zen eta hainbeste urteren ondoren gaur egun arazo gehiago ditugu haiekin kontaktatzeko. Baina 60ko eta 70eko hamarkadetako jendea hurbiltzen ari zaigu, urteetan gordea izan dutena kontatzeko prest. Hala ere, ezin da ukatu denborak memoria ahultzten duela eta zailagoa dela dokumentazioa eskuratzea, batzuk adina dela eta oso gaixo edo hilda egon daitezkeela... Bai, kasu batzuetan igarotako denbora arazo handia izan daiteke.

Kasu bereziak egongo dira.

Torturaren gaia aipatuta, guztioi Joxe Arregiren izena datorkigu burura. Bere kasuaren espedientea aurkitu dugu Madrilgo fundazio batean artxibaturik. Kopia bat eskuratzear gaude eta laster ekingo diogu azterketari.

1960 eta 2013 urteen artean, ezker abertzaleko kideenak ez ezik, beste ideologiatako pertsonen testigantzak ere baditugu: sozialistak, komunistak, sindikalistak, EAJren ingurukoak... Beste kasu esanguratsu bat

Enkarni Blancorena da. Atxilotua izan eta gero tortura bortitzak salatu zituen. Auziak ez zuen aurrera egin eta Nazio Batuen Erakundera jo zuen. Urtetan borrokatu ondoren erakunde horretako Torturaren Aurkako Batzordeak Espainia kondenatu zuen, baina ez torturengatik, bere kasua ez ikertzeagatik baizik. NBEk ez zuen ulertzen horrelako salaketa larri baten aurrean Espainiako erakundeek inolako ikerketarik aurrera ez eraman izana.

Halako gai baten aurrean, egin al daiteke bereizketarik?

Izan ere, kasu arruntak ez dira apalagoak. Bada pertsona bat salatu duena errepide kontrolean geratu eta kotxeiko pegatina antinuklearra janarazi ziotenean, ezin irentsi eta bertan fusilamendu simulakroa egin ziotela... Gertaera guztiak dira oso gogorak, eta hor dago testigantzaaren indarra. Horrelako pertsona bat urteak igarota kamera aurrean esertzen denean, atzean zerbait larria dagoela esan nahi du. Hori ez sinestea zaila egiten da. ■

**ESKATU
PUBLIZITATEA
EUSKARAZ**

© 943 371 545
www.argia.eus/tarifak

**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com